

# B euskararen BERRIPAPERA

## Euskara lan munduan

**E**uskararen Aholku Batzordeak 1990ean lan munduko euskararen normalizaziorako oinarritzko irizpideak eman zituen. Hortik abiatuta, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak lan munduan euskararen erabilera areagotzeko ikerketa eta programa diseinatzeari ekin zion, eta zenbait esperientzia pilotu abiarazi zuen hainbat enpresetan.

### Helburua

Enpresen barne eta kanpo harremanak euskalduntzea da xedea, hau da, eguneroko lanean euskaraz egitea, eta ez langileak euskalduntzea besterik gabe. Horretarako funtsezkoa da enpresako alderdi guztiek proiektuan parte hartzea eta guztien artean adostasuna lortzea erabilera plana abian jarri aurretik.

### Ari diren enpresak

Euskararen erabilera areagotzeko egindako planak, metodologia finkatzen lagundu du, eta lortutako emaitzek metodologia horrek balio duela erakutsi dute. Hala ere, metodologiaren ezaugarriak behinena, enpresaren ezaugarriari egokitutako plan gintza izatea da.

ELAY eta IKERLAN enpresak ditugu metodologiaren egokitasunaren erakusgarria lanaren aplikazioa burutua baitute. Bi enpresok aurrerari izan ziren planak abiarazten, eta, lortutako emaitzen argitan, euskararen erabilera gora egin du, bai ahozko harremanetan, bai idatzizkoetan. Bi enpresa hauekin batera, badira beste hainbat planari ekin ziotenak eta egun gauzatzen ari direnak, bakoitza dagokion fasean. Horien artean


ditugu, esaterako, CAF, MCC-Zerbitzuak, Arlan, Labein, Kuxta edota Fagor-Ederlan. Eta enpresa hauek gain, badira beste sei enpresa plangintzari aurten ekingo diotenak.

### Urratsak

Euskara erabiltzearen aldeko apostua egin den enpresetan, honako urrats nagusi hauek eman ohi dira, oro har:

dinamizatzaile izan daitezkeen pertsonak izatea enpresan, eta, langileen euskararekiko eta mikroplanarekiko jarrera.

*Diseinua:* plana enpresaren ezaugarriari egokitzen zaie. Horretarako enpresaren azterketa egiten da, lan prozedurak, komunikazio-zirkuitu eta -kanalak, nahiz lan eginkizunak kontuan izanik. Bestalde, inkesta pertsonal idatzia egiten da enpresako



*Bideragarritasun azterketa:* enpresaren egoera aztertzen da, mikroplana bideragarria ote den jakiteko, eta ardatz nagusiak zehazteko. Horretarako kontuan hartzen dira, besteak beste, enpresaren egonkortasuna, jarduera arloa, plantilaren finkotasuna, enpresako euskal hiztunen portzentaia, enpresa kokatuta dagoen eskualdeko euskaldunen portzentaia, plantilaren batez besteko adina, planaren

partaide guztien iritzia jasotzeko.

*Inplementazioa:* plana gauzatzen da, baldin eta enpresako agente guztiak ados baldin badaude. Langile bakoitzari planak eskatzen diona aurkezten zaio eta borondatezkoa da bertan sartzea.

*Jarraipen-ebaluazioak:* mikroplanaren gauzatzeari etengabeko ebaluazioa eta jarraipena egiten zaio. Horretarako jarraipen-batzordea eratzen da, hainbat

## SUMARIOA

- 1 Euskara lan munduan
- 2 Laburrak  
Pantxoa Etchegoin  
Kontuan hartzeko
- 3 Euskadi Literatur Sariak  
ENTZUN! Musika aldizkaria  
Antoine d'Abbadie
- 4 Izen-abizenek  
Euskalduntzearen curriculum berria  
Lehen begiratuan

ordezkarik hartzen duela parte bertan.

Plana burutu den kasuetan, plangintza mantendu eta segimendua egiten da, lortutako erabilera maila iraunarazteko.

### Enpresaren parte hartzea

Plana aurrera eramateko alderdi guztien parte hartzea ezinbestekoa bada ere, guztiz garrantzitsua da enpresari jarrera.

Enpresariak ere hasi dira konturatzeko euskara kontuan hartzea mesedegarri izan daitekeela, euskara balio erantsia delako enpresaren langileen asmoak enpresaren eginkizunetan txertatzea onuragarri den neurrian.

Beraz, hizkuntzak badu funtzio berezi eta funtsezkoa lan munduan: partaideen komunikazio eta harremanak errazago bihurtzea eta gizarte osoaren integrazio ahalmena aberasteko aukera ematea. Hitz batean, lan harreman guztiak gizatarraigo egitea, eta, ondorioz, ekonomia-aren aldetik ere, produktibitatea sustatzea.

✘ *ELAYko plana izan da aurrerarietako bat.*

## LABURRAK

## Euskal Herriko Historia

LUR argialetxeak jakintzaren zenbait arlo garatuko dituen bilduma berri bati ekin dio: *LUR Entziklopedia Tematikoa*. Hamahiru liburukitan banatuko da lana; bost lehenak, Atlas Historikoa, Artea, Hizkuntza eta Literatura, Geografia, eta, kaleratzeaz dagoen, Historia, Euskal Herriari eskainiko zaizkio oso-osorik. Gainerako liburukiak gai orokorren edo unibertsalen inguruan antolatuta emango dira argitara, hala nola, Matematika, Fisika eta Kimika, Historia Unibertsala, Geografia Unibertsala, Arte Unibertsala, Izadi Jakintza, Literatura Unibertsala eta Gizarte Jakintza. Euskal Herriko Historia da bildumako ale garrantzitsuenetakoa; historiaurretik hasi eta gaur egungo historia bitarteko erreposoa egiten du, Iparraldea eta Hegoaldea kontuan hartuta.



## Aita Villasante


Aita Villasante idazle, frantziskotar, hizkuntzalari eta euskaltzainak *Eusko Ikaskuntzaren eta Euskadiko Kutzaren Humanitate eta Gizarte Zientzien III. Saria* jaso zuen irailaren 10ean, Donostiako Miramar jauregian eginiko ekitaldian. Euskara berreskuratzeko, euskararen batasunerako eta euskara jakintza arlo guztietara hedatzeko eginiko lana eskertu nahi izan zaio sari honekin. Aurtengoa hirugarren edizioa izan da; aurreko edizioetan Julio Caro Baroja eta Alvaro D'Ors-ek jaso zuten saria, hurrenez hurren. Jose Antonio Ardanza lehendakariak, Euskal Herriko unibertsitateetako errektoreek eta euskal kultura eta politikaren inguruko hainbat kidek hartu zuen parte ekitaldian.

## Pantxoa Etchegoin

**P**antxoa Etchegoin da, 1997ko irailaz gero, Euskal Kultur Erakundeko zuzendari berria, Txomin Heguyren orde. Nafarroa Behereko Jatsun jaio zen 1960ko irailaren 11n. Euskal Ikasketako lizentzia egin zuen Baionako Fakultatean. Euskal kulturaren alorrean, antzerkigintzan eta itzulpengintzan bereziki, lan handia egin du. 1990-97 bitartean EKEko administrari izan da, eta lau urtez diruzain. Gure Irratian eta Irulegiko Irratian eleberri batzuen irakurle eta beste zenbait irratian euskal emankizunen esatari lanetan aritu da; Erramun Bachoken *Euskaraz Bizi* euskara

ikasteko metodoaren bideoetan antzezle, AEKko irakasle (1980-87), etabar ere izan da.

Antzerki munduari dagokionez, *Gazteluko mutxurdinak* antzerkia idatzi zuen (1985) Daniel Landartekin elkarlanean, Xirristi-Mirristi taldeko kide da 1984az geroztik, eta 1985-97 bitartean Euskal Antzerki Taldeen Biltzarreko (EATBko) lehendakari izan da. Hala ere, itzulpengintzak eman dio sonarik handiena; hainbat gai eta alorretako idazkiak itzuli ditu: merkataritza eta industri ganbararako,



lantegietarako idazkiak, gida turistikoak, Donibane-Lohizuneko Grévin museoko idazki guztiak, hainbat bideotarakoak, etab. Euskarazko sorkuntza artistikoa sostengatu eta bultzatzea eta kultur hedapena indartzea hartu ditu xedetzat EKEko zuzendaritzan izango den denboraldirako.



## KONTUAN HARTZEKO

## Leioako XII. Bertso Paper lehiaketa

Leioako Udalak XII. bertso paper lehiaketa antolatu du. Euskal Herriko edonork har dezake parte bertan. Bertsoak errima eta gai librekoak izango dira, eta nahi adina bertso bidal daitezke. Lehiaketak hiru maila izango ditu: 14 urtera artekoentzakoa (30.000 pezeta eta diploma), 15 urtetik gorakoentzakoa (45.000 pezeta eta diploma) eta herriko bertsoari onenarentzako saria (30.000 pezeta eta diploma). Sarituen zerrenda eta sari-banaketa abenduaren 20an egingo da Leioako Sakoneta Udak Kultur Aretoan. 1997ko azaroaren 7a da, berriz, bertsoak aurkezteko azken eguna.

## Gazteen XIII. Ipuin lehiaketa

Eibarko Udalak, aurreko ere, euskarazko eta gaztelaniazko ipuinen lehiaketa antolatu du gazteentzat. Hogeitabost urte arterainoko guztiek har dezakete parte bertan. Adinaren arabera bi maila egongo dira: 14-17 urte bitartekoena eta 18-25 bitartekoena. Gaia librea da guztientzat eta partehartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake hizkuntza bakoitzean. Sariak 1998ko urtarrilaren 10ean emango dira eta honela banatuko dira: I. maila (14-17 urte), lehenengo saria 25.000 pta., bigarrena 20.000 pta. eta hirugarrena 15.000 pta. Bigarren mailan, berriz, (18-25 urte), lehenengo saria 40.000 pta., bigarrena 23.000 pta. eta hirugarren saria 20.000 pta. Lanak aurkezteko azken eguna 1997ko azaroaren 21a izango da.

★ **Ahoz aho, belaunez belaun ... hil honetan non?**

**Urriaren 6tik 12ra Deban eta Elgoibarren**

**Urriaren 13tik 26ra Basaurin**

**Urriaren 27tik azaroaren 9ra Galdakaon**

## Euskadi Literatur Sariak

**E**usko Jaurlaritzako Kultura Sailak ezagutzera eman ditu aurtengo *Euskadi Literatur Sarien* irabazleen izenak.

Aingeru Epaltza suertatu da euskarazko Euskadi Literatur sariaren irabazlea, *Tigre Ehizan* izeneko lanari esker. Sari honen finalista saritua, berriz, Ramon Saizarbitoria izan da, *Bihotz bi. Gerrako kronikak* izeneko lanarekin.

Gaztelaniazkoa, bestalde, Pedro Ugarte idazleak eskuratu du, *Los cuerpos de las nadadoras* liburuarekin. Hurrengo saria, haur eta gazteentzako euskarazko saria, Bernardo Atxagarentzat izan da, *Xola eta Basurdeak* lanarengatik. Azkenik, Jose Morales Belda bilbotarrak itzulpenerako Euskadi saria jasoko du, *Gure garaiko heroia*, errusieratik euskarara itzulitako lana dela eta.

Aurtengo edizio honetan, lehen aldiz, dagoeneko argitaratuta dauden literatur lanak, 1996an kaleratutakoak hain zuzen, saritu dira. Euskal kulturarekin zerikusia duen edozein entitatek edo lagunek izan du hautagaiak aurkezteko aukera. Epaimahaiak literaturgintzan eta itzulpengintzan adituak diren

zenbait lagunek osatu dituzte. Besteak beste, Mariasun Landa, Itxaro Borda, Felipe Juaristi, Soledad Puertolas, Xabier Mendiguren, Juan Garzia, etab. izan dira epaimahaikide.

Sari orokorretako irabazleek bina milioi pezeta jasoko dituzte, eta sari berezietakoek, berriz, milioi eta



*Euskadi Sarien berri eman zen jakitera* ✕  
*Gasteizen irailaren 24an.*

bostehuna mila pezeta. Horrez gain, euskarazko Euskadi Literatur sariaren irabazleek eta finalistak, literatur obrak nazioartean aurkezteko eta euskara ez den beste hizkuntza batean argitaratzeko gainsariak izango dituzte. Sariok banatzeko ekitaldia azaroan izango dira.

### ENTZUN!


#### Musika aldizkaria

Musika alorrean euskara hutsez diharduen aldizkari bakarra da hau. Euskarazko kazetaritzaren esparruan argitarapen espezializatu baten beharra somatuta sortu zuen musikazale talde batek.

1996ko ekainean kaleratu zen lehenengo zenbakia eta geroztik bi hilabetetik behin kaleratzen da. Imanol Ubeda da aldizkariaren zuzendaria eta erredakzio taldean eta kolaboratzaileen artean, berriz, euskal komunikabideetako hainbat kazetari eta zenbait euskal musikari dago.

Elkarrizketak eta musika erreportaiak nagusi badira ere, beste zenbait sail finko ere baditu, hala nola disko eta maketen kritikak, komikiak, editoriala, iritziak, etab.


## Antoine d'Abbadie



**A**ntoine d'Abbadieren heriotzaren mendeurrena betetzen den honetan, kultur programazio zabala dastatzeko aukera izan dugu 1997. urtean zehar. Antolatutako ekitaldien barruan, Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak elkarlanean buruturiko Nazioarteko Biltzarra izan da ekitaldi nagusia.

Biltzarra irailaren 24tik 27ra bitartean egin da Hendaian eta hainbat ikertzaile eta unibertsitateko irakasle bildu dute bi elkarteek. Nazioarteko Biltzarrari amaiera emateko, irailaren 28an Sara herrian festa handia egin da. Ospakizunak Abbadiek sortutako Lore Jokoak omentzea izan du helburu. Horrela, lehen aldiz, Euskal Lore Jokoak

izan zituzten herrietako alkateak bildu dira Saran. Urri osoan, berriz, Irungo *Bai Teatro* taldearen *Lurraren Aparra* ikuskizuna izango da Abbadia gazteluan. Musika, kantuak eta euskarazko, frantsesezko eta gaztelaniazko testuak nahasian ditu ikuskizun honek.



**Piarres Xarriton**

Ekainaren 30ean aurkeztu zen Baionan Piarres Xarritonen *Euskara-frantsesa - Frantsesa-euskara* hiztegia. Bizpahiru urteko lanaren emaitza da hiztegi hau eta euskal hiztegegintzan zegoen hutsunea bete nahi izan du. Xabier Kintanaren hiztegian oinarritu da, baina Iparraldeko hiztegegileen lanaz ere baliatu da, hala nola, Pierre Lhanderen eta aita Casenave-Harigileren hiztegiak. Iparraldeko euskalkietako lexikoari lehenasuna emanez, 12.000 hitz beharrezkoenak bildu ditu. Piarres Xarriton Hazparden jaio

zen 1921ean. Erroman Teologian eta Parisen Filosofian lizentziatu eta Teologian eta Euskal Ikasketan doktore da. *Gazteria* gazte erakundearen zuzendari, Parisko Euskal Etxearen sortzaile eta Hazparneko Langintza Eskolako sortzaile eta zuzendari izan da. Irakasle ere izan da, institutuan eta EHUUn. Obra ugari argitara eman du euskaraz eta frantsesez. Ipar Euskal Herriko literatura aztertzen eta ezagutarazten ere lan handia egin du. UEUren sortzaileetako bat eta UZEIko kolaboratzaile izan da. 1985az geroztik euskaltzain oso da.

**Jabier Kalzakorta**

Jabier Kalzakorta idazle bizkaitarrak XIX. mendeko Iparraldeko ipuin argitaratu gabeak bildu, aztertu eta kaleratu ditu *Lamia, Sorgin eta Tartaroen Erresuma ezkutua* liburuan. Parisko Liburutegi Nazionalan, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean eta Baionako Museoan jasotako ipuinekin osatu du bilduma. Labayru Ikastegiak Bilbao Bizkaia Kutxarekin batera argitaratu du liburua eta ahozko literatura bildumako hirugarrena da.

Jabier Kalzakorta Markina-Xemeinen jaio zen 1961ean. Euskal Filologiako ikasketak egin zituen Deustuko Unibertsitatean. Gaur egun, aipatu Unibertsitateko euskal literaturako irakasle da Euskal Filologiako Fakultatean. Labayru Ikastegiko ikertzaile eta irakasle eta Euskaltzaindiko Ahozko Literaturako Batzordeko kide eta euskaltzain urgazle ere bada. Arestian aipatutako lanaz gain, beste hainbat lan egin ditu euskal kontugintzaz, lexikografiaz, eta abarrez.



**Euskalduntzearen curriculum berria**

HABE 1994an hasi zen euskalduntzearen curriculum berria diseinatzen, helduen euskara irakaskuntza hobetu nahian. Curriculum berri honek, besteak beste, irakasleen prestaketa areagotzea, curriculum langaiak plazaratzea, euskaltegien autonomia garatzea eta, azken batean, euskararen ikaskuntza eta irakaskuntza eraberritzea eta indarberritzea ekarriko du. Orain arte, curriculum berriaren lehen bi mailak diseinatu dira eta hainbat euskaltegitan frogatu. Datorren ikasturtean, berriz, beste hainbat euskaltegitara eramango du hirugarren maila, lehenengo bi mailak hedatzeari utzi gabe. Aldi berean, oinarritzko materialak sortzeko plangintza burutuko du. Materialen diseinuarekin batera irakasleen heziketa plana orokorrari ekingo zaio, curriculumaren hedapena egoki egin dadin. Curriculum berriaren erabateko ezarpena 1999rako aurreikusten da.

**Lehen begiratuan**



**U**ZEI eta EROSKI elkarlanean egiten ari diren Banaketa eta Kontsumoko hiztegi terminologikoen saileko bigarren lana da hau. Lehen liburukian janari-edariak landu ziren eta oraingo honetan, etxetresna elektrikoak salbu, hipermerkatu batean salgai dauden produktu gehientsuenak azaltzen dira: ehunkiak, oinetakoak, drogeriako produktuak, brikolajea, etxerako tresneria, jostailuak, kirola, sukaldeko tresneria, etab. Guztira 2.000 sarrera inguru azaltzen dira. Hiztegi zerrendak euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez landu dira. Liburuan eta disketean, datu base modura antolatuta, argitaratu da.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako Sailordetza**

Wellingtongo Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....

.....

.....

Helbidea: .....

.....

Herria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....